

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Produktu hau, nahiz eta edozeinek eros dezakeen eta edozeinen gustokoa izan daitekeen, gazte eta umeei bideratua izango da, batez ere. Izan ere, bezero hauek dira honelako gauzetan interes gehiago dutenak eta gauza berriak ikusi eta edukitzea gustoko dutenak. Adin tarte horretakoek beraien itxura duten figura bat izatea gustatzen zaie, batez ere panpin honen itxura pertsonalizatu ahal dezaketelako.

Hortaz, gure produktua saltzerakoan bi merkatu motatan ezarriko ginateke bezeroen arabera; alde batetik, merkatu masiboan, edozein pertsonarentzako izan daitekeelako, bestalde merkatu nitxoan.

Laburbilduz gure produktua hainbat bezeroei bideratuta dago, honek bi merkatu horietan (merkatu masiboa eta nitxoa) sartzea laguntzen digu, gainera ez dugu arazorik edukiko salmenta egiterako garaien, beti edukiko baititugu bezero mota ezberdinak gure produktuak erosiko dutenak.

